Euskal AEko biztanleak

Unitate didaktiko honetan estatistika zer den aztertzen hasi gara eta, horretarako, lehenbizi datuak irakurtzen eta interpretatzen ikasi dugu.

Estatuak datu asko erabili behar izan zuenean hasi zen erabiltzen estatistika, izenak dioen bezala. Adibide moduan beti ematen da Augusto Erromako enperadoreak egin zuen zentsua; izan ere, zentsu hori Jesus jaio zen urtean egin zen eta Maria Belenera joatea eragin zuen bertan zegoelako erroldatuta.

Datuak asko eta zailak direnean tauletan ematen dira. Beraz, taulak, datu-multzoak dira eta ilara eta zutabeetan banatzen dira. Unitate didaktiko honetan taula ugari erabili dugu.

Jarraian ematen den taulan familiei buruzko datuak (lurralde historikoka banatuta) eta familia bakoitzean batez beste dagoen pertsona kopurua agertzen dira. Hasieran guztirakoa ematen da eta gero kopuru horiek adin-tarteetan banatzen dira

	Guztira		0-19	20-64	≥65
Euskal AE	**748.967**	**2,76**	**0,47**	**1,8**	**0,48**
Araba	102.651	2,76	0,49	1,84	0,43
Bizkaia	400.403	2,79	0,47	1,81	0,51
Gipuzkoa	245.913	2,72	0,48	1,77	0,47

Datuak absolutuak edo erlatiboak izan daitezke. Baina goiko taulan agertzen diren datuak absolutuak dira balio hutsak ematen dituztelako.

Datu erlatiboek, ordea, zati baten eta osotasunaren arteko ehunekoa ematen dute. Adibidez, Araban 102.651 familia daude (datu absolutua) eta familia horiek guztiak Euskal AEko familia guztien (102.651. 651/ 748.967) x 100 = % 13,7 (datu erlatiboa) dira.

❖ Irakurri arreta handiz ezkerreko testua eta azpimarratu kontzeptu garrantzitsuenak.

❖ Erabili itzazu zure hitzak hurrengo galderei erantzuteko:

- Zer da taula bat?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

- Zergatik ematen dira ehunekoetan datu erlatiboak?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

Euskal AEko biztanleak

Datu absolutuak zein erlatiboak adierazteko beste modu bat diagramak dira. Diagrametan datuak grafikoki adierazten dira. Datu absolutuak diagrama kartesiarretan (koordenaden ardatz bi dituztenetan) ematen dira eta datu erlatiboak sektore-diagrametan (tarta bezala ezagutzen diren horietan).

Diagrama kartesiarren artean bi bereizi behar dira: barra-diagramak eta lerro-diagramak.

BARRA-DIAGRAMA.
Familien guztirakoari eta lurralde historiko bakoitzean dagoen familia kopuruari buruzko datuak.



LERRO-DIAGRAMA.
Familien guztirakoari eta lurralde historiko bakoitzean dagoen familia kopuruari buruzko datuak.



Datu erlatiboak emateko SEKTORE-DIAGRAMA erabiltzen da.
Lurralde bakoitzean dauden familien ehunekoa: kolore ilunena Araba da, tartekoa Bizkaia eta kolore argienekoa Gipuzkoa.



❖ Erabili itzazu zure hitzak hurrengo galderei erantzuteko.

- Zer da diagrama bat?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

- Zein diagrama erabiltzen da datu erlatiboak adierazteko? Zergatik?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA